



Murgian, bi mila eta hamaseiko otsailaren hamaikan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.-

#### ALKATEA

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)

#### BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)

MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)

CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)

JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)

#### BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA

LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakartzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

### 1.- AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Aurreko bileraren akta ikusirik,

En Murgia a once de febrero de dos mil dieciséis, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, D<sup>a</sup> Susana Zubiaur Zorrilla.-

#### ALCALDE

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

#### CONCEJALES ASISTENTES

DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)

DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)

DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)

DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)

DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

#### CONCEJAL QUE NO ASISTE

DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

### 1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA ANTERIOR.

Vista el acta de la Sesión anterior,



Alkatetzak akats bat hauteman du 4.-2016ko Aurrekontu eta Aurrekontu Plantillaren proposamena puntuan, eta hain zuzen ere, Udaltzako kideen ordainsari eta diru-esleipenei dagokien atalean, ez dagoelako dedikazio partzialeko alkateorderik.

Udaltzako akta zuzenketa horrekin onartzea erabaki du.

## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak 2016ko urtarrilaren 19ko 8. zk.ko dekretutik otsailaren 3ko 21.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: bitarteko funtzionarioa izendatzea hutsik dagoen administrari laguntzailearen lanpostua bete eta udaltxean eta liburategian lan egiteko. OAMIPeri Palatu kiroldegia erabiltzeko baimena ematea otsailaren 5ean inauteriak ospatze aldera. Kargua utzi duen bitarteko funtzionarioak baldintzak nabarmen aldatu izanaren ondorioz borondatezko karguuztearen kodea aldatzeko aurkeztutako eskaera ez onartzea, uko egitea espresuki aurkeztu zuelako. Murgiako 6. poligonoko 33. eta 34. lursailen mugak banandu eta ondoren elkartzuz egokitzeko baimena ematea. Udalaren alde erabilera publikoko egiazko zortasun-eskubidea aldi batez eratzeko baimentzea (horren eremua Casa Patrón hotelaren aurrealdean dagoen **141,84 m<sup>2</sup>**-ko esparrua izanik), terrazak eta mahaiak arautzen dituen udal-ordenantzaren babespean. Murgiako 2. poligonoko 1.138. lursailaren titularrak harri-lubetako harriak eta etxola kentzeko Udalak emandako agindua betetzearren egindako jarduketa onartzea. Murgiako 7. poligonoko 9. lursailen dagoen lokala etxebizitzarako egokitzeko baimena ematea. Murgiako San Martin kaleko 42-46 zenbakietako Jabeen Elkartearen eraikineko fatxada berritzeko lanen azken ziurtapena onartzea. Baimenak ematea: Giliernako 1. poligonoko 990-A

por parte de la Alcaldía se observa un error en el punto 4.- Propuesta de Presupuestos 2016 y Plantilla presupuestaria, y concretamente al final del mismo en el apartado referente a retribuciones y asignaciones de corporativos porque no hay Teniente de Alcalde con dedicación parcial.

La Corporación acuerda aprobar el acta con esa corrección.

## 2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto Nº 8 del 19.01.16 al 21 del 03.02.16 referentes a nombramiento de funcionaria interina para el puesto vacante de Auxiliar Administrativo con destino en la Casa Consistorial y Biblioteca, autorización al CPVO para utilizar el polideportivo de Palatu el 5 de febrero con motivo del carnaval, desestimación de la solicitud presentada por funcionaria interina cesante para el cambio del código de cese de baja voluntaria por modificación sustancial de condiciones porque de forma expresa presentó la renuncia, concesión de licencia para ajustar linderos de las parcelas 33 y 34 polígono 6 de Murgia mediante segregación y posterior agrupación, aceptación de la constitución de un derecho real de servidumbre de uso público con carácter temporal a favor del Ayuntamiento sobre el espacio de 141,84 m<sup>2</sup> situado en la parte delantera del Hotel Casa Patrón al amparo de la Ordenanza municipal reguladora de terrazas y veladores, aprobación de la actuación realizada por el titular de la parcela 1.138 polígono 2 de Murgia en cumplimiento de la orden requerida por el Ayuntamiento sobre retirada de piedras de escollera y caseta, concesión de licencia para acondicionar como vivienda un local situado en la parcela 9 polígono 7 de Murgia, aprobación de la certificación final de las obras de renovación de fachada del edificio de la Comunidad de



lursailean nekazaritza-erabilerako tunel antzeko biltegiatze-estalpea jartzeko; Bitorianoko 2. poligonoko 1.203. lursailean dagoen etxebizitza zati batez berritzeko; Domaikiako Administrazio Batzarrari, Maisuaren Etxea hartzen duen eraikina Kontzeju Areto eta Etxebizitzarako egokitzeko. Udalaren Murgiako 7. poligonoko 28. finka bi lursailetan banantzeko baimena. Eta lan, zerbitzu, zuzkidura, diru-laguntza, udal-langileen abenduko soldata, diru-laguntza eta zinegotzien 2015eko 4. hiruhilekoko dietei dagokien 1. zk.ko ordainketa-agindua (109.295,83 euro) onartzea.

Lopez zinegotzi andreak 10. zk.ko Dekretuaren inguruan galdetu du, hau da, bitarteko funtzionario batek borondatezko kargu-uztearen kodea aldatzeko eta horren orde, baldintzak funtsean aldatu izanagatik jartzeko aurkeztutako eskaera ez onarteari buruz, eta idazkariak erantzun dio Lan Aholkularitzak emandako informazioaren arabera lan-baldintzak funtsean aldatu izanagatik eskaerak hori jakinarazi eta hurrengo 20 eguneko epearen buruan aurkeztu behar dira eta jakinarazpena 2015.05.10ean jakinarazi zuen udalak (epai batzuk betetzeko helburuarekin); eskabidea, ostera, abenduan aurkeztu zen, eta horretan bere uko egitea espresuki adierazten zuenez, borondatezkoa dela ulertzen da.

Udalbatzak horren guztiaren berri izan duela adierazi du.

### 3.- POSTA OFIZIALA.

#### 3.1.- Arabako Foru Aldundia:

Propietarios C/San Martín N° 42-62 de Murgia, concesión de licencia para colocación de cobertizo de almacenamiento tipo túnel de carácter agrícola en la parcela 990-A polígono 1 de Guillerna/Gilierna, para reforma parcial de la vivienda situada en la parcela 1.203 polígono 2 de Bitoriano, a la Junta Administrativa de Domaikia para adecuar el edificio de Casa del Maestro como Sala Concejo y Vivienda, licencia de parcelación de la finca 28 polígono 7 de Murgia del Ayuntamiento en dos parcelas y aprobación de la relación de mandamientos de pagos N° 1 referente a obras, servicios, suministros, concesión de subvenciones, retribuciones del personal de enero y dietas de Concejales 4º trimestre 2015 por importe de 109.295,83 euros.

La Concejala Sra. López pregunta sobre el Decreto N° 10 que desestima la solicitud presentada por una funcionaria interina que solicitaba la modificación de la causa de extinción de la relación laboral con el Ayuntamiento considerando que el código correcto sería la modificación sustancial de las condiciones de trabajo en lugar del correspondiente a baja voluntaria del trabajador, manifestando la Secretaria que conforme a la información suministrada por la Asesoría Laboral la demanda por modificación sustancial de las condiciones del trabajo se tiene que presentar en el plazo de 20 días a contar de la notificación de la misma y ésta tuvo lugar por parte del Ayuntamiento el 21.05.2015 (con motivo del cumplimiento de unas sentencias), y el escrito de solicitud se presenta en diciembre, y en el mismo de forma expresa presenta su renuncia por lo que se entiende como voluntaria.

La Corporación se da por enterada.

### 3.- CORESPONDENCIA OFICIAL.

#### 3.1.- Diputación Foral de Álava:



- Gizarte Zerbitzuek: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazio-prozesuaren hasiera eta IV. Foru Planaren hasiera jakinarazi dituzte; gizarte-baliabideen ( EALZ eta ELZ) eguneratzea eskatu dute; eta EALZ mantendu eta kudeatzeko lankidetzahitzarmenaren 2015eko ekitaldiko amaierako likidazioa bidali du.

- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, udal-mailan sailkatutako Sarriako eraikinean aurreikusten diren lanen inguruan Ondare Zerbitzuak egindako txostena bidali du.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak: 2016rako OHZren zerga-tasei buruzko informazioa eta EJZren 2015eko aldaketa guztiak bidaltzea eskatu du, 2016ko matrikula egiteko; eta katastroaren mantentze-kuotak jakinarazi ditu: hilean 135 €.

- Mendi Zerbitzuak, berritzeko eskuragarri geratzen diren Kontzejuen luberritze batzuk libre daudela jakinarazi du.

- Ingurumen Zerbitzuak Arau Subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren irismena jakinarazi du.

- Toki Administrazio Sailak 2016ko TEFFFren behin-behineko hasierako partaidetzak jakinarazi ditu.

- Hirigintza eta Ingurumen Sailak HAPO eta IEE idazteko emandako dirulaguntzen (5.042,88 € eta 1.127,91 € hurrenez hurren) berresleipena jakinarazi du.

### 3.2.- Eusko Jaurlaritza:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak "Hezkuntza Euskadin. 2012/13ko txostena"-ren ale bat bidali du Euskadiko Eskola Kontseilutik, eta baita euskararen erabilerari buruzko ikur berria ezagutarazteko materiala ere (Txantxangorriaren intsignia).

- HAEEK 2015eko Toki Gida berria bidali du.

- Servicios Sociales comunica el inicio del proceso de evaluación del III Plan Foral de Igualdad de mujeres y hombres, el inicio del IV Plan Foral, solicitan actualización de los recursos sociales (CRAD y SAD) y remite la liquidación final del ejercicio 2015 del Convenio de colaboración para el mantenimiento y gestión del CRAD.

- Euskera, Cultura y Deportes remite informe del Servicio de Patrimonio de las obras previstas ejecutar en edificio de Sarría calificado a nivel municipal.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos solicitan información de los tipos impositivos del IBI para 2016 y remisión de todas las variaciones del año 2015 del IAE para elaborar la matrícula de 2016 y comunican las cuotas de mantenimiento de catastro: 135€/mes.

- Servicio de Montes comunica la disponibilidad de una serie de roturos de los Concejos que quedan disponibles para su renovación.

- Servicio de Medio Ambiente informa del alcance del procedimiento de evaluación ambiental estratégica de la 3ª modificación puntual de las NNSS.

- Administración Local comunica las participaciones iniciales provisionales del FFOFEL 2016.

- Urbanismo y Medio Ambiente comunica la reasignación de las subvenciones otorgadas para la redacción del PGOU y EAE por importes de 5.042,88€ y 1.127,91€ respectivamente.

### 3.2.- Gobierno Vasco:

- Educación, Política Lingüística y Cultura remiten desde el Consejo Escolar de Euskadi un ejemplar de "La educación en Euskadi informe 2012/13", material para dar a conocer el nuevo símbolo del uso del euskera (PIN Txantxangorri)

- IVAP remite nueva Guía Local 2015.



- Segurtasun Sailak Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen onspena jakinarazi eta prestakuntza-jardunaldien antolaketaren berri eman du.

- Emakundek emakumeen genitalen mutilazioari buruzko prestakuntza-jardunaldiaren deialdia bidali du.

### 3.3.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea

- Pertsona etorkinentzako itzulpen-zerbitzuari atxikitzeke informazioa eta fitxa bidali ditu.

### 3.4.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

- EAEko Toki Erakundeen 2013ko kontuen fiskalizazioari buruzko emaitzen inguruko txostena bidali du.

### 3.5.- Epaitegiak:

- Vitoria-Gasteizko 1. Auzialdiko 4. Epaitegiak Aretxagako **1.042**, **1.043** eta **1.044** lursailen Hirigintza Hitzarmenari buruzko dokumentazioa eskatu du.

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak Ametzaga Zuiako herritarrak jarritako errekursoaren inguruan emandako epai irmoaren testigantza bidali du. Errekurto hori instalazio pribatuan matxura bat egotearen ondoriozko gehiegizko ur-horniduraren tasaren aurka aurkeztu zen.

Eguiluz zinegotzi jaunak Aldundiko Mendi Zerbitzuak eskuragarri dauden Kontzejuen luberritzei buruz bidalitako idazkiak komentatu ditu, eurek ez dutelako ezer jakinarazi, eta alkateak erantzun dio horien epea eta Udalarenenak berbera delako izango dela.

Gorrotxategi zinegotzi jaunak AFAn Ondare Zerbitzuaren txostenak aipatzen duen eraikinari buruz (Gaviña jaun/andreak) galdetu du, eta alkateak erantzun dio txostena eskatzen dela udal-

- Seguridad remite comunicación sobre la aprobación de la Ley 10/2015 de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas e informan de la organización de jornadas formativas.

- Emakunde remite convocatoria de jornada de formación sobre mutilación genital femenina.

### 3.3.- EUDEL-Asociación de Municipios Vascos

- Remite información y ficha de adhesión al servicio de traducción para personas inmigrantes.

### 3.4.- Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

- Remite resultado de la fiscalización del informe sobre las Cuentas de las Entidades Locales de la CAE 2013.

### 3.5.- Juzgados.

- 1ª Instancia Nº 4 de Vitoria-Gasteiz solicita documentación relacionada con el Convenio Urbanístico de las parcelas 1.042, 1.043 y 1.044 de Aretxaga.

- Contencioso-Administrativo Nº 3 de Vitoria-Gasteiz remite testimonio de sentencia firme dictada en el recurso interpuesto por vecino de Ametzaga Zui por desestimación de recurso contra tasa por exceso de suministro de agua como consecuencia de una avería en la instalación privada.

El Concejal Sr. Eguiluz comenta los escritos remitidos por el Servicio de Montes de Diputación sobre los roturos de los Concejales que quedan vacantes, porque ellos no han comunicado nada, contestándole el Alcalde que será porque el plazo es igual para los del Ayuntamiento.

El Concejal Sr. Gorrotxategi pregunta sobre el edificio al que se refiere el informe de Patrimonio de la DFA (Sres. Gaviña), informándole el Alcalde que se solicita informe porque está protegida a



mailako babesa duelako.

nivel municipal.

#### 4.- ERABILERA PUBLIKOKO 734. MENDIKO APROBETXAMENDUEN ESLEIPENA.

Alkate-udalburuak esan du, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, aurkeztutako eskabideen eta eragindako abeltzainekin izandako bileren ostean, ondokoa litzatekeela erabilera publikoko 734. mendiko baso-aprobetxamenduen esleipen-proposamena:

**LUBERRITZEAK:** eskatzaileen arteko zatiketa bidezko samarra planteatu da banatu beharreko azalera kontuan izanda. Zatiak NPEekin alderatu beharko dira dagozkion aitorpenak aurkezterakoan arazoak saihesteko; banaketa honen ostean **8.500 m<sup>2</sup>** inguru geratu dira libre; behin-behineko esleituko direnak -beste eskabiderik ez dagoen bitartean-, eskatzaileetako batek (Oscar Urrutia) kudea dezan, eta baita bi tontor ere Marakalda inguruan, Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarraren luberritzeen mugakideak. Azken horiek oraingoz esleitu gabe uztea eta Batzarrak esleitzen dionari esleitzea proposatu da, egokiena dela uste dutelako.

**TXABOLAK:** Aldundiko Mendi Zerbitzutik ezarritako jarraibideak kontuan izanda, zeintzuetan azaltzen den beste garai batzuetan eraikuntza horien beharra eta izateko arrazoia artzaintza zela eta gaur egun ez dela hori gertatzen, ardi-azienden kasuan izan ezik, honako hau da EH Bildu taldearen proposamena: **Gorrostianoko** goiko aldekoak eta Arlobikoak orain arte eraman dituzten abeltzainei esleitzea; Laurenekoa erabilera publikorako erabiltzea, udalerriko Atzabal Mendi Taldeak horren erabilera-baldintzak zehaztuko dituen hitzarmen baten bitartez kudeatuko duelarik, hasiera batez, eta emaitzak ikusteko, luzatu ahal izango

#### 4.- ADJUDICACIÓN DE APROVECHAMIENTOS EN EL M.U.P. 734.

El Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, manifiesta que tras las solicitudes presentadas y las reuniones mantenidas con los ganaderos afectados, la propuesta de adjudicación de los aprovechamientos forestales el monte de U.P. 734 sería la siguiente:

**ROTURACIONES:** se ha planteado una división más o menos equitativa entre los solicitantes teniendo en cuenta la superficie a repartir, que habrá que cotejar con las de la PAC para evitar problemas a la hora de presentar las correspondientes declaraciones; después de este reparto quedan libres una parcela de unos 8.500 m<sup>2</sup> que se adjudicará provisionalmente - en tanto no haya ninguna nueva solicitud- para que la gestione uno de los solicitantes (Oscar Urrutia) y dos picos en la zona de Marakalda, lindantes a roturas de la Junta Administrativa de Ametzaga Zui, que se propone dejarlos pendientes a día de hoy y adjudicarlos a quien le adjudique la Junta, por considerarlo lo más adecuado.

**CHABOLAS:** Teniendo en cuenta las directrices marcadas desde el Servicio de Montes de Diputación, en las que se ha puesto de manifiesto que la necesidad y razón de ser que tenían estas construcciones en otros tiempos era el pastoreo y esto no se da en la actualidad, salvo en los supuestos de ganado ovino, la propuesta del Grupo EH Bildu es: adjudicar las de Gorrostiano de la parte superior y Arlobi a los dos ganaderos que las han llevado hasta ahora, destinar al uso público la de Lauren gestionando la misma a través del grupo de montaña del municipio Atzabal Mendi Talde mediante un convenio donde se concreten las



diren bi urtez; eta Aldarrokoa dagoenetan uztea, publikoak oro har erabiltzeko utzi edo abeltzaintza orokorrera (erlezaintza barne) mugatzen den erabaki arte.

**ERLAUNTZAK:** Eskatu duten pertsoneri esleitzea da proposamena.

Ondoren taldeek esku hartu dute:

**EAJ/PNV:** Ircio zinegotzi andreak esan du beraientzat egokiagoa litzatekeela Laurenkoa ere eskatu duen abeltzainen elkarteari esleitzea, eta alkateak erantzun dio hasieran eta batzordean esan zenez, Aldundiaren ideia dela erabilera pribatua saihestea, ardi-aziendaren kasuan izan ezik.

**ZBG/ZNU:** Alonso zinegotzi jaunak honakoa jasota utzi nahi du:

*“Zuiako udalak 734. mendiko luberritzeak, txabolak eta erlauntzak nekazari eta abeltzainei esleitzea aurreikusten du, eta hori guztia, jarduera horiek arautzen dituen araudiari jarraituz, hau da, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 foru-arauari. Zentzu horretan, arau horretan ezarritakoa zehazki betetzeko honako hau zehaztu beharko litzateke:*

- *Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan esaten da 734. Mendia “Zuiako haraneko herri guztiena” dela. Martxoaren 26ko 11/2007 foru-arau horren 21. artikulua honako hau dio hitzez hitz:*

*21. artikulua. Herri erabilerako katalogoko mendien araubide juridiko berezia*

condiciones del uso de la misma, con una duración inicial de 2 años prorrogables para ver el resultado y dejar pendiente la de Aldarro hasta decidir si también se amplía su uso al público en general o se limita al uso ganadero en sentido amplio (incluido el apícola).

**COLMENAS:** La propuesta es adjudicar a las personas que lo han solicitado.

A continuación intervienen los grupos:

**EAJ/PNV:** la Concejal Sra. Ircio manifiesta que ellos considerarían más adecuado adjudicar la de Lauren también a la Asociación de ganaderos que lo ha solicitado, contestándole el Alcalde que como ha comentado al inicio y en comisión, la idea desde Diputación es evitar un uso privado salvo en el caso de ganadero de ovino.

**ZBG/ZNU:** el Concejal Sr. Alonso quiere dejar constancia de lo siguiente:

*“El ayuntamiento de Zuia tiene previsto adjudicar las roturas, txabolas y colmenas a los agricultores y ganaderos, en el monte 734, Todo ello de acuerdo a la normativa que regula estas actuaciones, esto es la norma foral 11/2007, de fecha 26 de marzo, de montes. En este sentido, siendo fieles a lo estipulado en dicha norma habría que matizar:*

- *El Monte 734, en el catálogo de Montes de Utilidad Pública, figura la pertenencia al “común de los pueblos del Valle de Zuia”. El artículo 21 de citada norma foral 11/2007, de 26 de marzo, dice textualmente:*

*Artículo 21. Régimen jurídico especial de los montes del Catálogo de Utilidad Pública*



1. *Katalogoan mendi bat sartzeak jabetza-presuntzioa ematen dio mendiaren titular gisa agertzen den herri erakundeari. Dena den, ezin da jabetza horren aurka egin justizia-auzitegien aurrean interdiktu edo prozedura berezien bidez*

2002ko abenduaren 13ko osoko bilkuran hartutako erabakia betez, Zuiako Udalak katalogoko 734. mendian dauden bi lursail zuzenean saldu izanari buruzko espedientea dela-eta, FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ETA ESKUALDE GARAPENKO SAILAREN foru-diputatuaren 2003ko martxoaren 28ko 331. foru-agindua eta Foru eta Toki Administrazioiko eta Eskualde Garapeneko diputatuaren Foru Araua berresten duen apirilaren 1eko Diputatuen Kontseiluak hartutako 247/2003 erabakia aipatu behar ditugu, non honakoa esaten baita hitzez hitz:

“734. mendia Zuiako haraneko herri guztiena bezala agertzen da katalogoan eta ez Udalaren jabetzakoa moduan, herri guztiena izate horrek Udalaren dela esan nahi ez duelarik, agindu honek dioen bezala”

“Era berean, dio, katalogoaren arabera, titularra ez dela Zuiako Udala, Haraneko herri guztiak baizik”

- 734. Mendia, 833. Finka, 1. inskripzioa, Vitoria-Gasteizko 1. Jabetza Erregistroa. Bertan honela inskribatuta dagoelarik:

1877ko otsailak 9: **ALTUBE, GORBEA ETA ISALARRA IZENEZ EZAGUTUTAKO MENDIAREN**

1. *La inclusión de un monte en el Catálogo otorga la presunción posesoria a favor de la Entidad pública a cuyo nombre figure, sin que esta posesión pueda ser impugnada ante los Tribunales de Justicia por medio de interdictos o procedimientos especiales.*

Con relación al expediente de venta directa por el Ayuntamiento de Zuia de dos parcelas sitas en el monte 734 del catálogo, de acuerdo al acuerdo plenario de fecha 13 de diciembre de 2002, hacemos referencia a la orden foral 331, de fecha 28 de marzo de 2003 del Ilmo. Diputado foral titular del DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL Y LOCAL Y DESARROLLO COMARCAL y al acuerdo 247/2003, del Consejo de Diputados de 1 de abril, que ratifica la Orden Foral del Diputado de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal 331/2003, de 28 de marzo, en que dice textualmente :

“El monte nº 734 figura en el catálogo como común de los pueblos del valle de Zuia y no a favor del Ayuntamiento, sin que dicha naturaleza de común de los pueblos sea sinónimo de pertenecía al Ayuntamiento, como afirma este”

“De igual forma expone que el titular, según el catalogo, no es el Ayuntamiento de Zuia, sino, en comunidad, los pueblos del Valle”

- El Monte 734, Finca nº 833, inscripción 1ª Registro de la Propiedad número 1 de Vitoria. Que inscrito en el mismo de la siguiente forma:

09 de febrero de 1877:  
**INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE LA PROPIEDAD DEL MONTE**





**INSKRIPZIOA  
ERREGISTROAN.**

**JABETZA**

**CONOCIDO COMO ALTUBE, GORBEA  
E ISLARRA.**

833. Finka, 1. inskripzioa, Vitoria-Gasteizko 1. Jabetza Erregistroa. Finkaren deskribapena honako hau da:

*zenbaki hau duen finkaren jabetza inskribatzen du bakar-bakarrik Zuiako Udalaren herrien egiaztatutako eskubideak direla-eta, hirugarren bat horren jabe izan daitekeela baztertu gabe, Zigoitia, Arratia, Orozko, Baranbio, Aiara eta Urkabustaizko Udalen eskubideei dagokienez inskripzioa ukatuz.*

*Agerian geratzen denez, Jabetza Erregistroan egindako inskripzioa Zuiako Haraneko herrien egiaztatutako eskubideen arabera egin zen.*

11/2007 FORU ARAUA,  
MARTXOAREN 26KOA, MENDIEI  
BURUZKOA (2007ko apirilaren 23ko 44.  
ALHAO)

48. artikulua. Herri titulartasuneko mendi katalogatu edo mendi babesleeto luberritzeak.

2. Mendiaren erakunde titularrak luberritzeko eskaera egingo dio mendien arloan eskumena daukan Foru Aldundiaren Sailari, baso-aprobetxamenduen urteroko planaren barnean.

Gure ustez, luberritze horiek “familia-unitateak” izenekoei, mendiei buruzko 11/2007 foru-arauak izendatzen dituen bezala esleitu behar zaizkie, izan ere, familia-unitate horiek Zuiako haraneko herri guztienak dira eta, era berean, zuiarrenak. Hala ere, jakin badakigu ez dela Zuiako Udala, baizik eta Zuiako herri guztiak, mendi horren titularrak, luberritze horiek esleitu beharko lituzketen erakundeak

*Finca nº 833, inscripción 1ª Registro de la Propiedad número 1 de Vitoria. La descripción de la finca es la siguiente:*

*inscribo la posesión de la finca de este número tan solo en cuanto a los derechos acreditados de los pueblos del Ayuntamiento de Zuya, sin perjuicio de tercero que pueda tener mejor derecho a su propiedad, denegándose la inscripción por lo que respecta a los derechos de los Ayuntamientos de Cigoitia, Arratia, Orozco, Barambio, Ayala y Urkabustaiz,*

*Tal como queda patente, la inscripción realizada en el Registro de la propiedad lo fue en cuanto a los derechos acreditados de los pueblos del Valle de Zuia.*

NORMA FORAL 11/2007, DE 26 DE  
MARZO, DE MONTES (BOTH A nº 44, de  
13 de abril de 2007

Artículo 48. Roturaciones en montes catalogados o protectores de titularidad pública.

2. La solicitud de roturación se efectuará **por la Entidad titular del monte** al Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral dentro del plan anual de aprovechamientos forestales.

Entendemos que es necesario la acción de proceder a la adjudicación de estas roturas a las llamadas “unidades foguerales” tal como las define la norma foral 11-2007, de montes, ya que a fin de cuentas, dichas unidades foguerales, los son pertenecientes al común de los pueblos del valle Zuia y de igual forma, vecinos de Zuia. No obstante, somos conscientes de que no es el Ayuntamiento de Zuia, sino los pueblos de Zuia en comunidad, los titulares de dicho



*monte y quienes deberían ser las entidades que procediesen a la adjudicación de dichas roturas.*

*Gure aburuz, etorkizunean urratsak eman behar ditugu jabetza indibisoko egoera hori argitzeko eta Zuiako 12 toki-erakundeen artean, Udalen eta Kontzejuen artean, figura juridiko bat sortzeko, guztiok mendi horren titularrak garela sentituz. Horregatik, gehiago luzatu gabe, guztion artean figura berri hori sortzeari ekitea proposatzen dugu."*

Azalpena amaitu eta Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak esku hartu eta egiteko dagoen gai bat dela eta konpontzen saiatzeko eseri beharko direla esan du.

Udalbatzak proposamenak bozkatu eta honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aho batez:

A.- Ondoren zehazten diren luberritzeak Udalbatza honek onartutako baldintzetan esleitzea:

- Landa Gamboa SL: 110., 111. eta 112<sup>a</sup>. luberritzeak (21.947 m<sup>2</sup>)
- Jose Miguel Iturrate jn.: 4470 m<sup>2</sup>
- Mari Carmen López de Uralde and.: 123. luberritzea (26.818 m<sup>2</sup>)
- Alberto Barrón jn.: 115., 117. eta 118. luberritzeak (19.537 m<sup>2</sup>)
- Pedro Anda jn.: 127. eta 128. luberritzeak (17.929 m<sup>2</sup>)
- Roberto Iturrate jn.: 112 b luberritzeak (22.000 m<sup>2</sup>)
- Juan Carlos Arregi jn.: 119. eta 116b. luberritzeak (18.541 m<sup>2</sup>)
- Herminia Roque and.: 108., 109. eta 113. luberritzeak (20.749 m<sup>2</sup>)
- Oscar Urrutia jn.: 112d sautu luberritzea (28.500 m<sup>2</sup>) eta, aldi batez, beste eskaeraren bat egon bitartean, 128. Luberritzea (8.484 m<sup>2</sup>).

*Creemos que debemos dar pasos en un futuro próximo, para aclarar esta situación de propiedad de proindiviso y de crear una figura jurídica entre las 12 entidades locales de Zuiá, Ayuntamiento y Concejos, sintiéndonos entre todos titulares de dicho monte. Por ello, proponemos, sin más dilación, que entre todos acometamos la creación de esta nueva figura."*

Finalizada la exposición, interviene el Concejal Sr. Otsoa Eribeko quien manifiesta que es un tema que está pendiente y hay que sentarse para intentar solucionarlo.

Sometida la propuesta a votación, la Corporación ACUERDA:

PRIMERO.- Por unanimidad:

A.- Adjudicar las roturaciones que a continuación se detallan en las condiciones aprobadas por esta Corporación:

- Landa Gamboa S.L.:roturos 110, 111 y 112<sup>a</sup> (21.947 m<sup>2</sup>)
- D. Jose Miguel Iturrate: 4470 m<sup>2</sup>
- D<sup>a</sup> Mari Carmen López de Uralde: roturo 123 (26.818 m<sup>2</sup>)
- D. Alberto Barrón: roturos 115, 117 y 118 (19.537 m<sup>2</sup>)
- D. Pedro Anda: roturos 127 y 128 (17.929 m<sup>2</sup>)
- D. Roberto Iturrate: roturos 112 b (22.000 m<sup>2</sup>)
- D. Juan Carlos Arregi: roturos 119 y 116b (18.541 m<sup>2</sup>)
- D<sup>a</sup> Herminia Roque: roturos 108, 109 y 113 (20.749 m<sup>2</sup>)
- D. Oscar Urrutia: roturo 112d, sautu (28.500 m<sup>2</sup>) y provisionalmente hasta que haya alguna nueva petición, el roturo 128 (8.484 m<sup>2</sup>).



- Santiago Urrutia jn.: 120. eta 121. luberritzeak (24.536 m<sup>2</sup>)
- Oscar Ochoa jn.: 116a. eta 112c. luberritzeak (22.000 m<sup>2</sup>)
- Oscar Murgia jn.: 114. eta 106. luberritzeak (8.111 m<sup>2</sup>)
- Jon Ander Santos Vélez jn.: 107. eta 105. luberritzeak (8.551 m<sup>2</sup>).

B.- Ondoren zehazten diren pertsonen azaltzen diren arrazoiengatik eskatutako luberritzeak ukatzea:

- Paula Menoyo and.: eskaera epez kanpo aurkeztu duelako.

C.- Menoyo andreak kudeatzen zituen bi tontorrak esleitu gabe uztea, Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrak ondoko lur-eremuaren esleipendunari esleitzeko.

D.- Erlauntzen okupazioa Udalbatza honek onartutako baldintzetan ondorengo pertsonen esleitzea:

- Aranzazu Cruz Zurbitu and.: Aldarroko erlategia.
- Pablo Uriarte jn.: Aldarroko erlategia.
- Josefa Aguirre and.: Arlobi eta Aldarroko erlategiak.
- Jose Luis Bastida jn.: Gorrostianoko erlategia.

**BIGARRENA.-** Udalbatzak, gehiengo osoz, hots, EAJ/PNV taldeko hiru zinegotziak ez diren gainerako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aurreko horiek abstenitu baitira, honako hau erabaki du:

A.- Ondorengo artzainei txabolak okupatzeko baimena Udalbatzak onartutako baldintzetan ematea:

- Agustín Bilbao jn.: Gorrostianoko txabola (goiko aldekoa).

- D. Santiago Urrutia: roturos 120 y 121 (24.536 m<sup>2</sup>)
- D. Oscar Ochoa: roturos 116a y 112c (22.000 m<sup>2</sup>)
- D. Oscar Murgia: roturos 114 y 106 (8.111 m<sup>2</sup>)
- D. Jon Ander Santos Vélez: roturos 107 y 105 (8.551 m<sup>2</sup>).

B.- Denegar las roturaciones solicitadas por las personas que a continuación se detalla por los motivos que se exponen:

- D<sup>a</sup> Paula Menoyo: porque ha presentado la solicitud fuera de plazo.

C.- Dejar pendiente de adjudicación los dos picos que llevaba la Sra. Menoyo para adjudicarlos al adjudicatari@ del terreno lindante a los mismos por parte de la Junta Administrativa de Ametzaga Zui.

D.- Adjudicar la ocupación con colmenas en las condiciones aprobadas por esta Corporación la siguientes personas:

- D<sup>a</sup> Aranzazu Cruz Zurbitu: abeja de Aldarro.
- D. Pablo Uriarte: abeja de Aldarro
- D<sup>a</sup> Josefa Aguirre: abejas de Arlobi y Aldarro.
- D. Jose Luis Bastida: abeja de Gorrostiano

**SEGUNDO.-** Por mayoría absoluta, con el voto favorable de todos los Concejales excepto los 3 del Grupo EAJ/PNV que se abstienen:

A.- Autorizar la ocupación de las chabolas en las condiciones aprobadas por la Corporación, a los siguientes ganaderos de ovino:

- D. Agustín Bilbao: la chabola de Gorrostiano (parte de arriba).



- Juan José Ortiz de Zárate jn.:  
Arlobiko txabaola.

B.- Gorrostianoko goiko aldeko txabola erabilera publikorako uztea (lehen Ibáñez de Elejalde jaunak erabiltzen zuena), eta Atxabal Mendi Taldearen bitartez kudeatzea, Udalarekiko hitzarmen bidez eta hasiera batean bi urtez, baina alde biak ados egonez gero gainerakoen epe luzeenera luzatu ahal izango delarik.

C.- Ondoren zehazten direnei azaltzen diren arrazoiengatik eskatutako txabolen okupazioa ukatzea:

- Rodolfo Larrazabal jaunari Gorrostianoko goiko aldeko txabola, ez delako ardi-aziendaren titularra.

- Berretin Berdeari Gorrostianoko goiko aldeko txabola, ez delako ardi-aziendaren titularra eta horren helburua elkarte baten egoitza izate ez dela uste delako.

- Aranzazu Cruz Zurbitu andreari Aldarroko txabola, eskera epez kanpo aurkeztu duelako eta, dena dela, ez delako ardi-aziendaren titularra.

D.- Aldarroko txabola helbururik gabe uztea, horren litekeen erabilera zehaztu arte.

HIRUGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hauek gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkarietan.

**5.- ETXEBIZITZA TASATUAK  
ERAIKITZEKO MURGIA UE-22 ABEE-  
AREKIN SINATUTAKO  
LURSAILAREN BESTERENTZE  
KONTRATUA EBAZTEA.**

- D. Juan José Ortiz de Zárate: caseta  
de Arlobi

B.- Dejar libre para el uso público la chabola de la zona alta de Gorrostiano (anteriormente utilizada por el Sr. Ibáñez de Elejalde), y gestionarla a través del club de montaña del municipio Atxabal Mendi Taldea, mediante un convenio con el Ayuntamiento, por un plazo inicial de dos años, que podrá prorrogarse hasta el máximo del resto de los aprovechamientos en caso de acuerdo entre ambas partes.

C- Denegar a quienes a continuación se detallan la ocupación de las chabolas solicitadas por los motivos que se exponen:

- D. Rodolfo Larrazabal la chabola de la zona alta de Gorrostiano porque no es titular de ganadería ovina.

- Berretin Berdea la chabola de la zona alta de Gorrostiano porque no se trata de titular de ganadería ovina y se considera que la finalidad de la misma no es utilizar como sede de ninguna asociación.

- D<sup>a</sup> Aranzazu Cruz Zurbitu la chabola de Aldarro porque ha presentado la solicitud fuera de plazo y en cualquier caso no es titular de ganadería ovina.

D.- Dejar pendiente el destino de la caseta de Aldarro hasta concretar su posible utilización.

TERCERO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de estos acuerdos.

**5.- RESOLUCIÓN DEL  
CONTRATO DE ENAJENACIÓN DE  
PARCELA PARA LA CONSTRUCCIÓN  
DE VIVIENDAS TASADAS SUSCRITO  
CON LA U.T.E. MURGIA UE-22.**



Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Murgiako UE-22 ABEEarekin sinatutako kontratua (honen bitartez udalaren Murgiako UE-22ko 1. lursaila besterentzen zen udal-etxebizitza tasatuak eraikitzeko, emaitzako 4 etxebizitzaren eta esleipendunak ordaindutako 1.230,14 euroren truke) bertan behera uztea proposatu du, hasiera batean aurreikusitako epea eta horren luzapenak amaitu ondoren, ez delako esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren arabera exijitutako etxebizitza-eskatzailen kopurura heldu (12, kontuan izanda eraiki beharreko etxebizitza guztien %74 eskaintzen duela, Udalari emango dizkionak kenduta) eta enpresak ez duelako kontratua formalizatzeko asmoa erakutsi, alderantziz, baldintza horietan interesatzen ez zaiola jakinarazi dio.

Idazkariak egindako txostena ikusirik.

Dagokigun kontratua bertan behera uzteko aholkulari juridikoak egindako hitzarmen-eredua IKUSIRIK.

KONTUAN HARTUTA kontratua arautzen duen Baldintzen Pleguko seigarrenean aurreikusten zen baldintza etengarria ez dela bete eta esleipendunak adierazi duela baldintza horietan ez zaiola kontratua gauzatzen jarraitzea interesatzen.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- MURGIA UE-22 ABEEari esleitutako kontratua (honen bitartez udalaren Murgiako UE-22ko 1. lursaila besterentzen zen udal-etxebizitza tasatuak eraikitzeko, emaitzako 4 etxebizitzaren eta esleipendunak

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone declarar la resolución del contrato de enajenación de la parcela de titularidad municipal de la UE-22 de Murgia para la construcción de viviendas tasadas municipales mediante permuta con 4 viviendas resultantes más la cuantía en metálico de 1.230,14€ abonada por la adjudicataria, suscrito con la U.T.E. UE-22 de Murgia, toda vez que transcurrido el plazo inicialmente previsto y las prórrogas del mismo, no se ha llegado al Nº de solicitantes de viviendas exigido conforme a la oferta presentada por la adjudicataria (12, teniendo en cuenta que oferta el 74% del Nº total de las viviendas a construir, una vez descontadas las que se entregarán al Ayuntamiento) y la empresa no ha manifestado su interés en continuar con la ejecución del contrato, sino todo lo contrario, porque le ha comunicado que en esas condiciones no le interesa.

VISTO el informe emitido por la Secretaria.

VISTO el modelo de convenio elaborado por el Asesor jurídico para proceder a la resolución del contrato en cuestión.

CONSIDERANDO que no se ha cumplido la condición suspensiva prevista en la cláusula sexta del Pliego de cláusulas que regula el contrato y la adjudicataria ha manifestado que no le interesa continuar la ejecución del contrato en esas condiciones.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Declarar resuelto el contrato adjudicado a la UNION TEMPORAL DE EMPRESAS MURGIA UE-22 de enajenación de la parcela resultante Nº 1 de la UE-22 de Murgia de titularidad municipal para la construcción de



ordaindutako 1.230,14 euroren truke) bertan behera geratu dela deklaratzeko, prezioaren kontura Udalarari emandako zenbatekoa itzultzea eta behin betiko bermea eta osagarria kitatzea.

**BIGARRENA.-** Esleipendunari erabaki honen berri ematea.

**HIRUGARRENA.-** Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau formalizatzeko aholkulari juridikoak egindako hitzarmena formaliza dezan udalaren izenean eta ordezkari izan.

## **6.- MURGIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI UDALAREN LURSAILA LAGATZEKO ESPEDIENTEA.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, eta Murgiakoko Kontzejuak aurkeztutako eskaera ikusirik, udalaren jabetzako Murgiakoko 7. poligonoko 28. lursailan egindako partelazioaren ondoriozko B lursaila, Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, Kontzeju horri dohainik lagatzeko espedientea abiaraztea proposatu du, horren Gizarte Zentroa eraikitzeko.

Udalaren jabetzako ondare-higiezinak dohainik lagatzeko prozedurari buruz idazkariak egindako txostena ikusirik.

Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

**LEHENENGOA.-** Udalaren jabetzako Murgiakoko 7. poligonoko 28-B lursaila Murgiakoko Kontzejuari dohainik lagatzeko espedientea abiaraztea, zuiarren

viviendas tasadas municipales, mediante permuta con 4 de las citadas viviendas más la cantidad en metálico de 1.230,14€ más 123,01€ y proceder a la devolución de la cantidad entregada al Ayuntamiento a cuenta del precio, así como a la cancelación de las garantías definitiva y complementaria.

**SEGUNDO.-** Notificar esta resolución a la adjudicataria.

**TERCERO.-** Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice el convenio elaborado por el Asesor jurídico para la ejecución de este acuerdo.

## **6.- EXPEDIENTE DE CESIÓN DE PARCELA DE PROPIEDAD MUNICIPAL A LA JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGIA.**

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa a la vista de la solicitud presentada por el Concejo de Murgia, propone iniciar el expediente para la cesión gratuita al mismo de la parcela resultante B de la parcelación realizada en la de titularidad municipal Nº 28 polígono 7 de Murgia, una vez que sea inscrita en el Registro de la propiedad, para destinarla a la construcción del Centro Social de la citada entidad.

Visto el informe emitido por la Secretaria sobre el procedimiento de la cesión gratuita de inmuebles patrimoniales de titularidad municipal.

La Corporación por unanimidad **ACUERDA**

**PRIMERO.-** Iniciar el expediente de cesión gratuita de la parcela 28-B polígono 7 de Murgia de titularidad municipal a favor del Concejo de Murgia, por considerar que



aldeko interes orokorrekoa dela uste izanagatik, zuzkidura-ekipamendua eraikitzeko, eta hori guztia, partzelazioaren ondoriozko aipatu lursaila Jabetza Erregistroan inskribatuta egon ondoren.

**BIGARRENA.-** Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkari izan.

### 7.- TXOSTENAK.

Otsoa Eribeko jaunari hitza eman eta honako hauen berri eman du:

- Hutsik dauden eraikinak alokatzen saiatzeko lanean ari den talde bat dago.

- Kulturaren munduko pertsonekin elkarrizketak izatea aurreikusten du, Kultura Etxeko proiektuari begira.

Alkateak ondorengo jakinarazi du:

- Miniature jardunaldiak: dagoeneko jakinarazi zaie Udalak 3.000 €ko (BEZ barne) ekarpenarekin lagunduko duela, eta zenbateko hori beraiekin sinatuko den babesletza-kontratuan jasota egongo dela. Bihar prentsaurrekoa aurreikusita dago Aldundian Alvarez diputatu andreakin, 11:30ean.

- Hainbat arlotatik Javier Ruiz de Larrinagari omenaldia egitea proposatu dute, bederatzi aldiz esku hartu baitu ziklo-kroseko mundialetan, eta martxoan ekitaldi bat egitea proposatu du, arratsaldean eta udaletxean. Horretara toki-kolektibo ezberdinetako ordezkariak bertaratuko dira, eta oroigarriren bat emango zitzaion. Bertaratuko guztiak ados agertu dira.

**8.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDETZEKO ETA PREMIAZKO GAIAK.**

concorre el interés general a favor de l@s vecin@s de Zui, para la construcción de equipamiento dotacional, una vez que la citada parcela, resultante de la parcelación, esté inscrita en el Registro de la Propiedad.

**SEGUNDO.-** Facultar al Sr. Alcalde-Presidente, D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

### 7.- INFORMES.

Concedida la palabra al Sr. Otsoa Eribeko informa:

- Hay un grupo que están trabajando para intentar que se alquilen edificios que se encuentran vacíos.

- Tienen previsto mantener entrevistas con personas del mundo de la cultura de cara al proyecto de la Casa Cultura.

El Alcalde informa:

- Jornadas miniature: ya les ha comunicado que el Ayuntamiento colaborará con una aportación de 3.000€ IVA incluido en el contrato de patrocinio que se firmará con ellos. Mañana está prevista la rueda de prensa en Diputación con la Diputada Sra. Álvarez a las 11:30 horas.

- Desde diversos ámbitos han propuesto realizarle un homenaje a Javier Ruiz de Larrinaga, que en nueve ocasiones ha participado en mundiales de ciclo cross y propone realizar un acto en marzo, a la tarde, en el Ayuntamiento, al que asistirían representantes de diversos colectivos locales, y se le haría entrega de algún recuerdo. Todos los presentes manifiestan su acuerdo.

**8.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.**



Udalbatzak aho batez, eta premiazkozat jo ondoren, Gai Zerrendan aurreikusi gabeko ondorengo aztergaia gehitzea erabaki du:

**8.1.- Alkatetzari baimena ematea udalaren izenean eta horren ordezkari gisa terrazak eta mahaiak jartzeko aurreikusitako eremuen gainean erabilera publikoko zortasuna dagokion udal Ordenantzaren arabera eratzeko beharrezkoak izan daitezkeen agiriak eta eskritura publikoak egin ditzan.**

- 2016.01.26an Alkatetzak Casa Patron hotelaren jabeekin, Casa Patrón hotelaren terrazarako erabiliko den 141,84 m<sup>2</sup> inguruko eremuaren gainean erabilera publikoko zortasunaren egiazko eskubidea eratzeko sinatutako hitzarmenaren berri eman da. Hitzarmen horren helburua terrazak eta mahaiak arautzen dituen udal Ordenantza aplikatzea izan da. Halaber, zortasun hori eratzeko Notarioaren eskritura formalizatzeko Alkatetzari baimen berezia eman behar zaiola jakinarazi da.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

**LEHENENGOA.-** Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburuak Zuiako udalaren izenean eta horren ordezkari gisa M<sup>a</sup> Asunción Manzano Orozko andrearekin, HOTEL CASA PATRÓN S.A. enpresaren izenean eta horren ordezkari bezala, sinatutako hitzarmena berrestea. Aipatu eraikinaren aurrealdean dagoen 141,84 m<sup>2</sup> inguruko eremuaren gainean erabilera publikoko zortasuna eratu eta, ondoren, Udalak onartzea izan du hitzarmen horrek helburu.

**BIGARRENA.-** Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburuari baimena ematea

La Corporación por unanimidad y previa declaración de urgencia acuerda incluir el siguiente punto no previsto en el Orden del Día:

**8.1.- Autorización a la Alcaldía para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice los documentos y escrituras públicas que fueran precisas en la constitución de la servidumbre de uso público sobre espacios previstos para la instalación de terrazas y veladores, de acuerdo con la Ordenanza municipal correspondiente.**

- Se da cuenta del convenio suscrito con fecha 26.01.2016 por la Alcaldía con la propiedad del Hotel Casa Patrón para la constitución de un derecho real de servidumbre de uso público sobre el espacio de unos 141,84 m<sup>2</sup> destinado a terraza del Hotel Casa Patrón, con el fin de permitir la aplicación de la Ordenanza municipal reguladora de terrazas y veladores y la necesidad de autorizar de forma expresa a la Alcaldía para formalizar la escritura de constitución de la citada servidumbre por parte del Notario.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

**PRIMERO.-** Ratificar el Convenio suscrito por el Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza en nombre y representación del Ayuntamiento de Zuia con D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Asunción Manzano Orozko en nombre y representación del HOTEL CASA PATRÓN S.A. para la constitución y posterior aceptación por parte del Ayuntamiento de una servidumbre de uso público sobre el terreno situado en la zona delantera del citado edificio, de unos 141,84 M<sup>2</sup>.

**SEGUNDO.-** Autorizar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza





udalaren izenean eta horren ordezkari gisa dagokion eskritura publikoa formaliza dezan.

- Kontuan izanda gaurko egunez Nagusi hotelaren aurrealdean dagoen 40 m<sup>2</sup> inguruko eremuaren gainean erabilera publikoko zortasuna eratzeko Udalaren eta LAU SIRO CORPORACIÓN HOTELERA S.L. enpresaren arteko hitzarmena sinatu gabe dagoela, alkate-udalburuak hitzarmen hori eta dagokion eskritura publikoa sinatzeko baimena ematea proposatu du.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburua gaitzea, LAU SIRO CORPORACIÓN HOTELERA S.L. enpresarekin Nagusi hotelaren aurrealdean dagoen eremuaren gainean erabilera publikoko zortasuna eratzeko hitzarmena sina dezan, terraza eta mahaien udal-ordenantza betetze-aldera, eta ondoren, dagokion eskritura publikoa formaliza dezan.

#### 8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:00etan, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice la correspondiente escritura pública.

- Teniendo en cuenta que a fecha de hoy está pendiente de firmar el Convenio por parte del Ayuntamiento con LAU SIRO CORPORACIÓN HOTELERA S.L. para la constitución de una servidumbre de uso público sobre el espacio situado en la zona delantera del Hotel Nagusi de unos 40 M<sup>2</sup>, el Alcalde-Presidente propone que se autorice la firma el mismo y de la correspondiente escritura pública.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza la firma del Convenio con LAU SIRO CORPORACIÓN HOTELERA S.L. para la constitución de una servidumbre de uso público sobre una parte del espacio situado en la zona delantera del edificio Hotel Nagusi para la aplicación de la Ordenanza municipal de terrazas y veladores, y la posterior formalización de la escritura pública.

#### 8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No hay.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 20:00 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria, / La Secretario,